


# Euskararen Jatorriaren 8. Biltzarra

## Mitologia: jatorria irakurtzeko zientzia



Lazkao, 2013ko maiatzaren 15ean

### Egitaraua

- 09:30 Harrera, akreditazioa eta liburuen erakusketa  
09:45 Agurra eta aurkezpena  
10:00 **Juan Inazio Hartsuaga:** *Hitzak fosil*  
10:45 **Roslyn M. Frank:** *En busca de los atributos y huellas cognitivas de la figura de Hamalau dentro y fuera de Euskal Herria*  
11:30 Atsedenaldea  
12:00 **Felix Zubiaga:** *Sumeriar-euskal ipuinaren antzezpena*  
12:30 **Xabier Renteria:** *Aitzin euskal mundu ikuskera: mitologia eta euskara aurreindoeuroparrak.*  
13:15 **Ahozko komunikazioak:** **Josu Naberan:** *Asteko egunen esanahiaz*  
13:35 Mahaingurua: *Euskararen jatorrirantza Mitologiaren barna*  
14:00 Bazkaria (euskaltegian bertan)
- 16:30 **Bisitaldi gidatua:** Joxemiel Barandiaran Museoa (Ataun herrian)  
18:15 Gogoratu: **Jorge Oteitza.** *Gure aurreindoeuroparraren euskal filologiarako nozioak*  
18:50 Bisitaria: **Antonio de la Guardia.** *La escritura ibérica y los jeroglíficos del S. 8 a.C al 29 a.C.*  
19:35 **Liburuen aurkezpenak:** Jabier Goitiaren *El ADN del euskera*, Luis Silgoren *Estudios de toponimia ibérica*, Antonio Arnaizen *El origen de los vascos* eta Felix Zubiagaren *Hitzen Jatorria*  
20:00 **Iruña-Veleia: zer berri?**  
20:10 Biltzarraren amaiera

## Aurkibidea

1. Aurkezpena .....	3
2. Juan Inazio Hartsuaga: Hitzak fosil .....	6
3. Roslyn M. Frank: En busca de los atributos y huellas cognitivas de la figura de Hamalau dentro y fuera de Euskal Herria .....	16
4. Felix Zubiaga: Sumeriar-euskal ipuinaren antzezipena .....	23
5. Xabier Renteria: Aitzin euskal mundu ikuskera: mitologia eta euskara aurreindoeuroparrak .....	31
6. Ahozko komunikazioak. Josu Naberan: Asteko egunen esanahiaz .....	51
7. Gogoratuz: Jorge Oteitza. Gure aurreindoeuroparraren euskal filologiarako nozioak ...	59
8. Antonio de la Guardia. La escritura íberica y los jeroglíficos del S. 8 a.C al 29 a.C. ....	72
9. Liburuen aurkezpenak .....	79
9.1. Jabier Goitia: El ADN del euskera .....	79
9.2. Luis Silgo: Estudios de toponimia ibérica.....	81
9.3. Antonio Arnaiz: El origen de los vascos.....	82
9.4. Felix Zubiagaren Hitzzen Jatorria.....	83
10. Iruña-Veleia: zer berri? .....	84

# 1. Mitologia, euskara eta euskaldunon jatorria

## *Aurkezpena*

Euskal kultura modernoak badu zulo bat aspalditik, hein handi batean, mitologiarekin eta hizkuntzarekin zerikusia duena. Aipatutako zulo hori betetzen laguntzeko, maiatzaren 25ean Lazkaon Euskararen Jatorriaren VIII. Biltzarra egingo dugu, hizkuntza eta mitologia aurrez aurre jarritz.

Egungo gizarte modernoan bakoitza bere bidetik dabil, “mitologia-hizkuntza” banaketa bat bizi dugulako. Baina betidanik eskutik eskura ibili dira, gizarteak eta hizkuntzak (oso modernoak ez badira) “mitologia+hizkuntza” batuketa bizi zen garaietan sortuak eta eraldatuak izan omen zirelarik.

Antzinetatik mitologiak existentziaren gaineko balizkoak gorpuzteko eta komunikatzeko “lengoaia sinbolikoak” izan dira, eta honek ere “hitzen bidezko lengoaiak” diren hizkuntzak busti ditu. Horrela, mendeetan zehar hizkuntzek zegozkien mitologiaren islak gorde izan dituzte. Beraz, edozein herriren eta hizkuntzaren jatorria ezagutu nahi badugu, ezinbestekoa zaigu biak batera arakatzea.

Euskal etnologia eta linguistika -gure herriaren tamaina eta estatu gabezia kontuan harturik batez ere- nahiko landuak eta dinamikoak izan direla esan dezakegu, baina ez dirudi kulturaren bi alde garrantzitsu horiek batera behar beste ikertuak izan direnik, zenbait salbuespen kenduta, esaterako Jose Maria Satrustegi (*Mitos y creencias, Antropología y lengua...*), Txomin Peillen (*Euskaldunen ingurugiroan*) eta besteren bat.

Dena den, badirudi hizkuntzalariek, oro har eta historikoki, ikerketa ildoak euskararen “azalean” (adierazpide fonetikoetan, lexikaletan eta abar) lehenetsi dituztela eta, horrela, ez dutela hainbeste arakatu hizkuntzaren “sakonean” (esaeren eta zelai semantikoen esanahietan bereziki). Nola aurreratu dezakegu?

Gakoa “mundu ikuskera” kontzeptua dugu: existentzia ulertzeko eta komunikatzeko ditugun egitura sakonen saskia. Erraz onar dezakegu bai mitologiak eta bai hizkuntzak dutela atzean mundu ikuskera bat: edozein mitologia sinboloen eta istorioen bidezko mundu ikuskera bat da, eta edozein hizkuntza hitzen eta kontzeptuen bidezko mundu ikuskera bat. Biak eskutik eskura zebiltzan garaietan sortuak eta eraldatuak izanik, argi dago, beraz, euskal mitologiaren eta euskararen atzean dagoen mundu ikuskera ezagutzea euskal gizartearen eta euskararen jatorria ulertzeko laguntza ordainezina gerta dakigukeela.



*Irudia: Gasteizko Udala*

Zoritarrez, euskal mundu ikuskera sakon eta zabala oraindik “dekodifikatu” gabe dugula ematen du. Onuragarria litzazuke, beste edozein herrirentzat bezala, beharrezko gaiak salbuespenik gabe lantzea. Arriskutsuegia, joerak horrela jarraiturik, euskararen eta euskaldunen jatorria eta historia ezagutzeko gabezia hau egiturazkoa bilakatzea. Adibidez, euskararen iragana ezagutzeko (aipatu irizpideari jarraiki), euskalaritza modernoak euskararen antzinako formen gaian etimologiak eta adierazpideen berreraikuntzak lehenetsi ditu, euskararen jatorrian eta jatorri horretan senide posibleak izan zitzakeen beste hizkuntzak arakatzekak alboratuz.

Eta tamala da, afera honetan izan genuelako gure profeta: Justo Mari Mokoroa. Euskaltzain honen *Genio y Lengua* aparteko liburuak, 1936an argitaratua, eragin itzela izan zuen geroko belaunaldietan, Guda Zibilak eta geroko debekuek hedapena ikaragarri murriztu bazuten ere. Hizkuntza batek herri baten *volksgeist* edo, -termino modernoagoetan- *weltanschauung* delakoa islatzen zuela zioen: herriaren izpiritu kolektiboa, bere mundu ikuskera zehatza. Ez zen sagardotegi batean botatako proposamen arina: Justo Mari bizitza osoa pasatu zuen “Euskal Herriaren jainua” erakusten zuten euskararen esaerak biltzen, oso gerora *Ortik eta emendik* (1998) izeneko liburukietan ongi sailkatu argitaratu zirenak.



Justo Mari Mokoroa


Mitologiaren eta hizkuntzaren zubi lana egitea izango da, beraz, Euskararen Jatorriaren VIII. Biltzarraren zeregina eta, horretarako, gai hau jorratzen duten adituak izango ditugu. Batetik, Juan Inazio Hartsuagak, jadanik klasikoa bihurtu den *Euskal Mitologia Konparatua* idatzi zuena, euskararen aitzin-geruzei buruz hitz egiteko *Hitzak Fossil* liburuan egindako proposamena mahai gainean jarriko digu.

Ondoren, Roslyn M. Frank, ia ikertu gabe izan dugun pertsonaia mitologiko bat eta mendez mendez bere inguruan dauden alderdi linguistiko eta folklorikoak izango du hizpide: *hamalau* pertsonaia. Berau hartzarekin eta animalia honek Neolitikokoaren garaitik gure arbasoen pentsaeran izan zuen protagonismoarekin lotuta dago.

Xabier Renteria, bestetik, aitzineko euskal mundu ikuskeraz arituko da, mitologia eta euskara aurreindoeuroparrak alderatuz. Bere iritziz, euskarak gordetzen du orain arte gehiegi desestali ez den oso antzinako geruza bat, indoeuropar garaikoa baino lehenagokoa, planetako mundu ikuskera sakonekin lotzen gaituena. Horri esker, eta orain arte gogoeta gehiegirik gabe onartutako Ortzi jainko nagusiaren hipotesiaren aurrean, Hutsaren eta Amalur edo Mariren ideia osagarriekin askoz hobeto oinarritu eta ulertzen da bai gure arbasoen bizitza ikuskera eta bai euskararen hainbat semantika zahar.

Arratsaldean Jorge Oteitzak hizkuntzalaritzari egindako ekarpena aztertuko dugu. Jorgek *Quousque tandem*-ekin hasi, *Ejercicios espirituales en un túnel*-ekin jarraitu, eta azkenik *Nociones para una filología vasca de nuestro indoeuropeo*-rekin amaitu zuen gure arbasoen hizkuntza, mundu ikuskera eta artea ulertzeko ibilbide luze bat. Bere hurbilketa,

kontzeptuala baino gehiago, sentipenetatik sortua zen. Bere ustez gure arbasoen mundu ikuskera Hutsaren kontzeptuan oinarritua dago, Orzi bere bizipena eta Mari bere agerpena direlarik. Eta hortik tiraka mendebaldeko historia Euskal Herritik irakurri zuen, inork gutxik egin duen bezala.



Biltzarrean beste gai batzuk ere landuko dira: Antonio de la Guardiaren iberiar idazkerari buruzko teoria, aurten argitaratu diren liburuak eta Iruña-Veleiaren azken albisteak.

Euskararen Jatorria Elkarte